

EROSKIk Asun Bastida izendatu du taldearen Harreman Instituzionalerako eta Komunikazio Korporatiborako zuzendari

- Izendapenak kooperatibaren gobernu egitura indartuko du, eta segida emango dio partaidetzan oinarriturik EROSKIk daraman kudeaketa ereduari.
- Taldearen proiektio instituzionalaren lidergoa hartuko du Bastidak: aliantza estrategikoak bultzatuko ditu, lankidetzak ingurunearekin eta harremanak hedabideekin eta interes taldeekin.

Elorrio, 2025eko azaroaren 3a.– [EROSKI](#) Asun Bastida izendatu du zuzendari berria Harreman Instituzionalen eta Komunikazio Korporatiboaren arlorako. Mikel Larreak postua utziko du, Konfekoop Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko zuzendari jarriko baita. 25 urtetik gora daramatza Bastidak erakundean, eta postu berrian haren helburua izango da gobernantza kooperatiboa indartzea eta partaidetza, gardentasuna eta konpromiso sozialaren balioak bultzatzen jarraitzea, hori baita EROSKI ezaugarritzen duen eredua.

Zeregin berrian, Asun Bastida arduratuko da EROSKI Taldeak izango dituen harreman instituzionalen eta komunikazio korporatiboaren estrategiak definitzeaz; horretarako, posizionamendu ardatzak eta lehenespena duten interes taldeak identifikatuko ditu. Haren zereginak batez ere izango dira ingurunearekin aliantza estrategikoak bultzatzea, enpresen eta instituzioen alorreko foroetan kooperatibaren presentzia indartzea eta taldea ordezkatzeko sektoreko elkarteetan, elkarrizketa mahaietan eta proiektu kolaboratiboetan. Hala berean, lankidetzak sustatuko du unibertsitateekin, zentro teknologikoekin eta fundazioekin, eta harremanak kudeatuko ditu komunikabideekin eta iritzian liderrak direnekin. Helburua izango da EROSKIren interesak babestea eta haren posizioa sendotzea erreferentziazko kooperatiba gisa, bai eta gardentasuna erakustea eta pertsonen eta ingurunearekin konprometitzea ere.

Asun Bastida Hondarribiakoa da (Gipuzkoa), Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, eta espezializazio bat egina du finantzen arloan. 1996an, ibilbide profesionala abiatu zuen EROSKIn, eta zenbait ardura postu izan ditu Pertsonen, Prozesuen eta Sistemen arloetan. 2014tik, Tokiko Produktuaren Zuzendaritza Komertzialean jardun da. Kargu horretatik gidatu du nekazaritzaren arloan diharduten hurbileko elikagai-hornitzaileen garapena eta bultzatu ingurunearen aberastasuna.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950

Horretaz gainera, EROSKI S. Coop.-en Kontseilu Errektoreko eta EROSKI Fundazioaren Patronatuko kide da, bai eta EAE eta Nafarroako Elikadura klusterretako zuzendaritza batzordeetakoa ere. Haren izendapenarekin, bokazio kooperatiboa indartuko da, eta konpainiak apustu egingo du partaidetzan eta balio partekatuaren sormenean oinarrituriko lidergo baten alde.

"Neure gain hartuko dut ilusio eta ardura handiarekin etapa berri hau. EROSKI bakarra da bere eredu kooperatiboagatik, pertsonenganako konpromisoagatik eta ingurunean balioa sorrarazteko duen gaitasunagatik. Nire helburua da enpresa egiteko era hau indartzen jarraitzea, zeinak oinarritzat baititu hurbiltasuna, partaidetza eta esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko koherentzia. Erakundearen barruan hazi denaren harrotasunarekin ekingo diot erronka honi, eta konpromiso bezala hartuko dut haren garapen kolektiboari laguntzen jarraitzea", esan du **Asun Bastidak, Harreman Instituzionaletako eta Komunikazio Korporatiboko zuzendari** izendatu dutenean.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.